

## UDALBATZARI

## AL AYUNTAMIENTO PLENO

### EH BILDU taldearen Arau Proposamena, Ur hornidura eta Saneamenduko Udal Erregelamenduaren 53. artikulua aldatzeari buruzkoa

### Proposición Normativa del Grupo EH BILDU relativa a la modificación del artículo 53 del Reglamento Municipal de Abastecimiento y Saneamiento.

EH BILDU taldeko bozeramaileak, 2024ko maiatzaren 10ean, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Ur hornidura eta Saneamenduko Udal Erregelamenduaren 53. artikulua aldatzeko:

El Portavoz del Grupo EH BILDU presentó con fecha 10 de mayo de 2024 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la modificación del artículo 53 del Reglamento Municipal de Abastecimiento y Saneamiento.

*“Tarifa politikaren xedea da ordainagiri bidez zenbat diru bilduko den erabaki eta horien egitura ezartzea, hau da, zerbitzuaren erabiltzaileei kuotak nola aplikatuko zaizkien zehaztea. Tarifen egiturak, era berean, erabilera bakoitzak ekarpen egoki bat egitea izan behar du irizpide gisa, batez ere eragin sozialak kontuan hartuta.*

*“Es objeto de la política tarifaria fijar la cuantía de los ingresos que van a ser recaudados vía recibo y establecer su estructura; es decir, de qué modo se van a aplicar las cuotas a los distintos usuarios del servicio. La estructura tarifaria debe guiarse también por una contribución adecuada de los diversos usos, teniendo especialmente presente los efectos sociales.*

*Hori dela eta, gure ustez, NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINTZAKO JARDUERETARAKO urez hornitzeko tasa bat txertatzea komeni da, jarduerari erabilera orokorretatik berezitako zerga-tratamendu espezifiko eman ahal izateko.*

*Es por ello que consideramos conveniente la incorporación de una tasa por el suministro de agua para el USO DE ACTIVIDADES AGRARIAS que posibilite un tratamiento fiscal específico diferenciado de los usos en actividades en general.*

*Proposatutako tasa berri hori Ordenantza Fiskalean txertatu ahal izateko, eta ordenantza fiskal horrek beharrezko babes eta estaldura juridikoa izan dezan, Udalaren ur hornidura eta saneamenduko araudia aldatu beharko litzateke lehenbizi, eta kategoría edo erabilera berri bat txertatu: «Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako erabilera», zehazki.*

*Para poder incluir en la Ordenanza Fiscal la nueva tasa propuesta, y tener amparo y cobertura jurídica, debería modificarse de forma previa el actual Reglamento Municipal de Abastecimiento y Saneamiento, incluyendo una nueva categoría o uso, concretamente el “Uso de Actividades Agrarias”.*

*Udalbatzak arau proposamenaren ekimena onetsi eta aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea bete ondoren, EH Bildu udal-taldeak araudia aldatzeko proposamen hau aurkeztu du, onar dadin:*

*Una vez aprobada la iniciativa de proposición normativa en Pleno, y sometida al trámite de consulta pública previa, el grupo municipal EH Bildu presenta para su aprobación la siguiente propuesta de modificación normativa:*

1. 53. artikuluko b atalean, "Etxeko erabilerarik ez duen kontsumoa" izenekoan, "**Nekazaritza-jardueretarako kontsumoak**" izeneko epigrafe berri bat gehitzea.

1. Añadir en el artículo 53, apartado b, relativo a los “Consumos para usos no domésticos”, un nuevo epígrafe denominado “**Consumos para usos de actividades agrarias**”.

*Era berean, 53. artikuluan azken-aurreko paragrafo gisa gehitzea honako hau:*

*Añadir, asimismo, como antepenúltimo párrafo en el artículo 53 el siguiente:*

*“Nekazaritza-jardueretarako kontsumotzat hartuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Departamentuaren Nekazaritza Ustiatgien Erregistroan alta emanda dauden nekazaritza-ustiategiak hornitzeko*

*“Tendrán la consideración de consumos para usos de actividades agrarias los suministros destinados al abastecimiento de explotaciones agrarias que figuren dados de alta en el Registro de Explotaciones Agrarias*



*ur-hornidurak, baldin eta erregistro horretan agertzen den ustiategiaren tamaina Nekazaritzako Lan Unitate (NELU) baten berdina edo handiagoa bada."*

*del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa cuando el tamaño de explotación que figure en este Registro sea igual o superior a una Unidad de Trabajo Agrario (UTA )."*

Gune Publikoen, Obrak eta Hiri Zerbitzuetako Batzordeko 2024ko ekainaren 17ko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

En sesión de 17 de junio de 2024, la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción de los siguientes

### ERABAKIAK:

### ACUERDOS:

**LEHENA:** Hasierako izaeraz onartzea Ur hornidura eta Saneamenduko Udal Erregelamenduaren 53. artikulua aldaketa, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

**PRIMERO:** Aprobar inicialmente la modificación del artículo 53 del Reglamento Municipal de Abastecimiento y Saneamiento. en los términos descritos en la parte expositiva.

**BIGARRENA:** Aurreko aldaketa jendaurrean jartzea 30 eguneko epean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten.

**SEGUNDO:** Someter la precedente modificación a trámite de información pública durante el plazo de 30 días según lo dispuesto en el artículo 49 de la ley 7/85, de 2 de abril de Bases de Régimen Local, a fin de los interesados puedan presentar las reclamaciones o sugerencias que estimen pertinentes.

Horiek aurkezten ez badira, Ur hornidura eta Saneamenduko Udal Erregelamenduaren 53. artikulua aldaketa behin betiko onartu dela ulertuko da, azalpen-zatian deskribatutako moduan.

En el caso de que éstas no se presenten se entenderá aprobada definitivamente la modificación del artículo 53 del Reglamento Municipal de Abastecimiento y Saneamiento, en los términos descritos en la parte expositiva.

Donostian, 2024ko ekainaren 17an.

En San Sebastián, 17 de junio de 2024.

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA  
LA SECRETARIA GENERAL DE PLENO

Nagore Sarasola Otermin.